



ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

21. Alea 1998ko Ekaina



SAN PEDRO JAIETARAKO DENOK GERTU!

- Joseba Errasti, tanborrada zuzendariak txistua eta makila gertu.

- Atxorrotx ONG-a Merkatu justurako dendan kolaboratzaile.

- ZE BARRI?-ren 2. urtemuga.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 714407
 Udal Bulegoak 714532
 Udaltzaingoa 714407
 Euskaltegia 792168
 Kultur-Etxea 714688
 Gizarte-Laguntzailea 714688
 Kiroletxea 715328
 Liburutegia 714688
 Luis Eceiza 714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486
 Almen 714964
 Museo-Eskola 714688
 Ze Barri 714077
 Talde Antimilitarista 715028
 Irakasle Eskola 714157
 Osakidetza 714452
 Telesko 714917
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800
 Renfe (Zumarraga) 721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 791419
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 088

ZE BARRI?

Argitaratzailea:
AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano.

Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Lourdes Martinez.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1.500 ale

“ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”

Joseba Errasti Iriarte

Tanborradako zuzendaria.

1. Denbora asko daramazu zuzendari bezela?.

Uste dut 1980an hasi nintzela, ez nago ziur.

2. Nolakoak dira eskoriatzarrak tanborradan?.

Nahiko kaxkarrak, baina oso ondo pasatzen dugu.

3. Zenbat batailo irtetzen dira?.

Guztira sei. Hiru tanborrekin, beste talde bat barriekin, sukaldariak eta amonak.

4. Zer egin behar da batailoiren baten parte hartzeko?.

Gogoia eduki behar da.

5. Noiz egiten da tanborrada?.

San Pedro bisperan.

6. Tanborrada denak berdinak dira?.

Ez dira bi tanborrada egongo soinu bera aterako dugunik.

7. Zertan erabiltzen duzu zure aisialdia?.

Bizikletan ibili, irakurri eta txikiteoan.

8. Zer aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?.

Ni alkatea bainintz?, ba, alkatea aldatu.

9. Zer nabaritzen duzu faltan Ze Barri? Aldizkarian?.

Oso ondo dago. Zerbait "gizendu" beharko luke. Azken orrialdeko argazkia gustatzen zait.



Zer egingo zenuke San Pedroko Jaietan?



Asier Heriz

- Autokrossa eta motokrossa egingo nituzke



Raul Toston

- Autoen igoerak Gatzara eta triala



Alberto Oñate Akizu

- Retegi II Goñi liaren kontra Ezkoriatzako frontoian jarriko nituzke



Juan Ignacio Ugalde

- Rally humoristiko eta jokuak koadrillentzako



Josu Azkarate Kañamake

- Emparantzan triala eta rock festibala ere bai



Zigor Lapuente Urrutia

- Zezenak jarriko nituzke.



ESKORIATZAKO UDALA
 Euskara Batzordea

Aldizkari honek Udaletxearen laguntza jasotzen du



Esko Sport

Kirola eta sport moda

Leintz bailaran.

Tel. 943 715296

San Pedro jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

TXALAPARTA

JATETXEA

Tfnoa.: 715046

Jai zoriontsuak guztio!

PUMARIKISH,

Mendi ezezagunaren xarma bila.

Jose Ramon Eskibel, beste bilbotar mendizale bat lagun zuela, maiatzaren 30ean (hilebete t'erdirako) Pakistan aldera joan zen abentura berrien bila. Ilusioz behintzat abiatu ziren Pakistan aldeko mendien konkistan, asmo garbi bat eraman behar eta; Pumarikish, sekula inork igo gabeko mendiari desafio egitekotan gainera. Baina egoerak hala behartzen baditu, atzera egingo duten ziurtasun osoarekin joan dira gero, goi mendietan ibiltzen eskarmenturik eduki badaukatelako, argi dute ezinezkorik egiten ez direla ahaleginduko.

Joserrak mendirako eta eskalatzen aritzeko hain zaletasun handia izanik, erronka berriei aurre egiteko erabaki du Pakistango abentura hau burutzea.

Lehenago ere, mendi baxuagoak izanagatik antzeko ahaleginetan ibilia da bai Pirineoetan, eta baita Andeetan ere. Mendian ibiliak egitea gustoko duen arren, halako plazer berezia ematen dio batez ere harkaitza hatzez miazkatzeak.

Eskalatzaile trebea da, horma erraldoietan denbora luzez zintzilikaturik egoten ondo moldatzen den horietakoa. Xaguzarrak bezala Joserrak ere egunak emango lituzke harkaitzean, oinak airean dituela, zintzilik.

Pumarikish igotzeko asmoa.

Pumarikish, 7300-7500 metro bitartean dituen mendi puska da, sekula inork haren tontorra zapaldu ez duenez, halako misterio batek erakargarri egiten duen gailurra. Joserra eta Iñaki (Bilboko mutila) printzipioz mendi hau igotzen ahaleginduko dira. Horretarako, astebate egingo dute oinez harik eta

mendia aurrez aurre eduki arte. Material eta elikagai aldetik beharrezkoena soilik eramango dutenez, pare bat zamaketarirekin nahikoa izango omen dute.

Ondoren, hamabi egunetan aklimatazioa egitekotan dira. Epe horretan, inguruko baldintzetara egokitu ezezik, Pumarikish mendiari ere arreataz erreparatuko diote, gertuagotik, dama erraldoiak erakusten dituen zailtasunez hobeto jabetzeko.

Lanean segitzeko baldintza egokiak badira, zamaketarien lana beren gain hartuz, materiala, janaria, erregaia eta ilusioa soinean hartuta, 1500metrotako harri blokea igotzeari ekingo diote.

Haserako izotz kristalak ez die beste munduko burukominik sortarazten, igotzeko modukoa omen

da. Baina bukaerako harri bloke erraldoiak errespetu handiagoa ematen du, eta zalantza gehien horrexek eman die.

Baldin eta Pakistango paraje ederra ikusita, mendi bakarra egin ostean ezin asetuz badaude, beste mendi batzuetara igotzeko ahaleginik ere egingo dute.


Baina hauek guztiak asmoak baino ez dira, eta erabakiak berriz, dituzten posibilitateen arabera hartuko dituzte. Uztailaren 14an berriz izango ditugu gure artean, baina bitartean zorterik onena opa diegu.



A&B
aholkulariak

**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA
ASEGURUAK**

ALDETEC



Ondo pasa San Pedro jaietan!

**TASAZIOAK
PERITAZIOAK
PROIEKTU ING.
OBRA ZUZENDARITZAK
ERREFORMAK**

Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**
(Gipuzkoa)

Gastañadui, 7 - bajo
Tel.: 908 - 774133 - Tel.-Fax 715436 **20540 ESKORIATZA**

MERKATARITZA JUSTURAKO DENDA

Joan zen hilaren leian, Eskoriatzako "Atxorrotx" Gobernu Kanpoko Erakundeak Arrasateko "Harreman", Aretxabaletako "Hiruatz", Bergarako "FISC" eta Oñatiko "Banoia" ONG-ekin batera, bi urtetan zehar garatzen joan den proiektu bat gauzatzea lortu zuen, Arrasateko Hiper Eroskin Bidezko merkataritza edo Komertzio Justuaren denda zabaltzea, hain zuzen ere.

Egun horretatik aurrera, Eroski enpresak berak utzitako 30 metro karratuko lokal batean, eta Hirugarren Munduko herrialdeekin harreman ekonomiko berria ezartzeko helburuarekin, iraunkorrak diren hainbat jaki erosi ahal izango ditugu: kafea, azukrea, txokolata, kakaoa, espezieak edo mermeladak, adibidez; gainera hirugarren munduko artisautza produktuak, erropak eta produktu testilak ere izango ditugu. Horrela kalitate onenari batere muzin egin gabe, bidezkotasan eta berdintasunean oinarritutako merkataritzari atek zabalduko dizkiogu.

Hirugarren Munduan produzitu eta guk hemen kontsumitzen ditugun produktuak garatu bariko nazioetako langileek sufritzen duten zapalketa eta lan baldintza eskasen frutu dira sarritan. Soldata negargarriak emanaz, nekazal produktuei salneurri mixerableak jarriaz eta lan baldintza gogorretan aritzera behartuaz, mundu mailako banatzaileak aberastea eta guregana produktua merke heltzea lortzen da. Produktua ekoizten duen nekazariari azken prezioaren %5 edo %10 besterik ez zaio heltzen.

1964an Nazio Batuen Erakundeak antolatutako Garapenerako Lehenengo Konferentzian, multinazional handiek kontrolatzen duten sistema aldatzeko lehen pausoak eman ziren. "Laguntza ez,

Komertzioa" lelopean, Bidezko Merkataritzaren kontzeptua sortu eta Iparralde aberatsaren eta Hegoaldeko herrialdeen arteko erlazio zuzen eta bidezkoagoak bultzatzea erabaki zen.

Hogeita hamasei urte beranduago, Europar bakarrik hau guztia lortu da: 3.000 denda eta 45.000 salmenta leku zabaltzea eta komertzio moeta hau bultzatzen duten 100 erakunde eratzea. Horretarako 50.000 bolondres inguru mugitzen dituen sarea osatzea lortu da. Guztiarekin 45 herrialdeetako produktuak banatuz 35.000 miloi pezetatara arteko salmentak lortu dira. Estatu espainiarrean, 1993an hasi ziren irekitzen Bidezko Merkataritzako lehen dendak, eta gaur egun, berrogeita hamarretik gora dira era honetara funtzionatzen duten dendak, 500 milloi pezetatoko salmentak mugituaz.

Bidezko Merkataritza mugimenduan sartu ahal izateko, zenbait baldintza bete beharra daukate ekoizle, bitartekari eta saltzaileek, Arrasateko denda honek ere beteko dituenak: Haurren esplotazioa gaitzestea, langileei, emakumezko zein gizonezko izan, soldata duin eta berdinak ematea eta erakunde demokratiko eta partehartzaileak eratzea, besteak beste.

Ekoizle eta kontsumitzailearen arteko bitartekoak gutxituaz, eta saltzailearen onura ekonomikoak alde batera utziaz lortzen den dirua, gainera, herrialde bakoitzeko garapenerako

erabiltzen da, eskola, errepide, ur horniketa edota medikuntza zerbitzuetarako, adibidez.

Arrasateko "Harreman" dendan, Ghana eta Kolonbiako kafea, Cuba eta Boliviako kakaoa, Sri Lankako tea, Ecuadorko mermelada, Senegalgo kakahuete krema, Cubako rona, Peruko infusio belarrak, eta Afrika, Latinamerika eta Asiako erropa eta artisautza lanak erosi ahal izango dituzue.

Produktu bakoitzak, gainera, bere jatorri eta elaborazioa azalduko duen txartel bat eramango du, eta era berean, bertatik lortzen den dirua zertan erabiliko den azalduko du. Modu honetara, kontsumitzailea mentalizatzea lortu nahi dute Deba Garaiko ONG hauetako kideek.

Produktuak lortzeko, Deustoko MERCADECO Hirugarren Munduko produktuen banatzailearekin eta INTERMONEkin harremanak izango dituzte. Eskaintza zabalagoa egin ahal izateko beste banatzaile batzuekin harremanak ezarri nahi dituzte arduradunek, eta etorkizun batean, banatzaile sare propioa lortzea espero da.

Denda hauek, gainera, aukera polita eskaintzen dute Gobernu Kanpoko Erakundeek martxan dituzten proiektuak erakusgai jarri, eta bide batez, atxekimenduak lortzeko, kontzientziario lan garrantzitsua egiteaz batera.



ATXORROTX ONG-ko zenbait kide.

**lortzen den dirua,
gainera, herrialde
bakoitzeko
garapenerako
erabiltzen da, eskola,
errepide, ur
horniketa edota
medikuntza
zerbitzuetarako**

...

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa

*fundazioa
fundación*


Jai zoriontsuak
eskoriatzar guztiei!

San Pedro jai zoriontsuak
eskoriatzar guztiei!

Gaztañadui, 21
Tf. 943 715387
ESKORIATZA

Karmanta

2 URTE, 22 ALE



21. zenbaki honekin bigarren urtea betetzen dugu Eskoriatzako kontuen barri euskaraz ematen. Iaz sasoi honetan idatzi genuen bezala, aurtengo helburua gure proiektu hau sendotzea zen, bai lan talde aldetik eta baita azpiegitura aldetik ere. Bada, horretan ari gara, lokala lortu dugu, gutxieneko baliabide teknikoak ere bai (maketaziorako beharrezkoa), eta astean 12 ordutako lanpostu bat ere sortu dugu; guztia, noski, Udaletxearen eta aldikarian publizitatea jartzen dutenen ezinbesteko laguntzarekin.

Eskertzekoa da Eskoriatzan izan duen harrera, eta elkarrizketa guztietan adierazi duzuen moduan orri gutxitxo duela aitortu behar guk ere. Gure asmoa aldizkari sendoago bat egitea den arren, gaur egun beharrik haundiena ekonomikoa da. Izan ere Eskoriatza herri txikia dela kontuan hartuta, publizitatez lortu daitekeen diru sarrera mugatua dela esan behar da. Dena dela, gure helburu honekin jarraituko dugu aurrera, lehen bait lehen pauso berri bat eman eta 12 orrialdetako aldizkaria hileroko ateratzeko asmoz.

Baina ez da ekonomikoa aldizkariaren behar bakarra. 12 orrialde betetzeko zuen laguntza beharko dugu. Eta nola lagundu?

- Argazki zaharrak ekarriz.
- Iritzi artikuluak idatziz.
- "Zuzendariari" eskutitzak idatziz.
- Azoka atalerako informazioa utzita.

... eta ZE BARRI? Urlatik Landetara aldizkariko partaideoi gure lana egitea erraztuz. Aurten gehiago eta hobeto!!!

•Zertan lagunduko zenuke?.

Ze Barri? zurea ere badelako, zuk zeuk ere har ezazu hitza.

kolaboratu gurekin zeuri ongien datorkizun moduan: komikiak eginez, atal berriak proposatuz, iritzi artikuluak idatziz...

- IZEN- ABIZENAK:.....
- TELEFONOA.....
- ZURE PROPOSAMENA.....

(Moztu eta ekarriguzu eranskin hau Kiroldegiko ZE BARRI?-ren bulegora, edo utzi Kultur Etxeko buzoian).

EROSLE

HARATEGIA, FRUTATEGIA eta BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3 • Tfnoa: 943 714546

San Pedro jai zoriontsuak , eskoriatzar guztiei!

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Ondo pasau San Pedruak!

- KOMUNEKO ALTZARI MANPARAK
- HORMA ARMAIRUAK
- ATERAKO BEIRAKIAK
- EGONGELATARAKO MAHAIAK
- ISPILU BISELATUAK ETA MARKOAK

Loramendi, 10

ARETXABAETA • Tf. 943 798178

SAN PEDRO JAIK GAINEAN DITUGU

Astebukaera honetan ekingo diegu herriko jai nagusiei, aurtengo jaietan nobedade batzuk ere egongo dira gainera. Hasteko, aipatu aurten jai egun bat gehiago izango dugula, Ekainaren 27an, larunbata, ekintza mordo baiteude prestatuta.

Jaiak ondo hasteko.

Arratsaldez pilotalekuan herri kirolak egongo dira, baina saioen artean Angel Mari Peñagarikano eta Mikel Mendizabal bertsotan arituko dira. Bestalde, egun honetarako tabernariak dantzaldia antolatu digute "Gau Bela" taldearekin. Frontoian berriz, Bergarako **Jam** aretoaren eskaerari erantzunez, rock kontzertua izango dugu "La Polla", "Doctor Deseo", "Kaos Etiliko" eta "Zei" taldeekin.

Dena den jaien hasiera ofiziala Ekainaren 28an egingo da, San Pedro bizperan, orduan botako baita txupinazo. Aurten pregoia Museo Eskolaren eskutik etorri da.



Aurten ez da kuadrilen arteko jokurik egongo.

Txosnak, aurten gehiago eta hobeto.

Aurten jaietan hiru txosna egongo dira: **Gestorarena**, **Insumisoena** eta herriko rock taldeena. Iazko leku berdinean egongo dira, **Dorleta** soziedadearen aurrean.

Txosnan lan egiteko jende asko behar dutenez, laguntzeko asmoa baduzu bertara joan zaitezke, antolatzaileek eskertuko dizute zure laguntza. Gauean berakatz sopa egiteko asmoa ere badute, eta ziur goizaldean, kalimotxo hotzak eztarria urratu dieten horiei mesede egingo diela.

Gainera, astegunerako jaietako programatik kanpo hainbat ekintza prestatu dituzte. Arratsaldetan, mus, tute, partxis, pelota partiduak (kontzejupen)... gazteok arratsalde Eskoriatzako jaietan ez baitugu ezer askorik izaten. Anima zaitez eta etorri txosnetara giro ona egongo da eta.



Insumisoen txosna.

Bestela jaietan ez dago nobedade haundiegirik. Iaz bezela aurten ere Nagusien tanborradan Insumisoen batailoia ere irtengo da.

Sorpresaren bat edo beste.

San Pedro egunean bada "**Tirri-tarra show**" taldeak eskeiniko digun espektakulu ikusgarri bat, ikusle oro dibertituko duena. Honako hau pasaiako fanfarre talde arrakastatsu bat dugu, giroa alaitzeko ezusteko eta sorpresa ugari ematen dituen. Frantziako fanfarre lehiaketan zazpi bider irabazi dute lehenengo saria, beraz, ez da nolanhiko taldea eta ziur gaude Eskoriatzan ere giro ona ipiniko dutela.

Gainontzeko ekintzak ohikoak dira, urtero egoten diren pilota partiduak, haurren tanborrada, haurrentzat jokuak eta jolas parkeak, San Pedro elizan Meza Nagusia eta Parrokiako Abesbatzaren emanaldia, Gorosarri dantza taldearekin euskal dantzak herriko plazan, suzko erruberak...

Gauetan berbenak izango ditugu eta egunez berriz txarangen eta musika bandaren kalejirak giroa alaituaz.

Beraz, jaiak hasi behintzat giro onean hasiko ditugu, eta nola bukatuko diren, hori guztion eskutan dago.

Ondo pasa San Pedro jaietan!

ALDI

JANARI DENDA

Hidalga, 8
Tfnoa: 943 71 45 42

goxotxiki

GOZOTEGIA

Hidalga, 3 • Tf. 943 715436
ESKORIATZA

Ondo pasau herriko jaietan!

SERVICIOS DE LIMPIEZA

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Pedro jai zoriontsuak!
Tfnoa-Faxa: 714845

Zuri Garbiketak
ESKORIATZA

BASERRIKO PRODUKTU ETA ARTISAUTZAREN II. FERIXIE

Ekainaren 6an ospatu zen Baserriko produktu eta Artisautzaren II Ferixie Eskoriatzako plazaren inguruan. Jose Arana-Almen Ikastolak antolatuta Zapatu goiza oso giro onean igaroteko aukera izan genuen.

Postuak bi eremutan banatuta egon ziren: Fernando Eskoriatza enparantza ingurua bata eta Gernika enparantza bestea.

Fernando Eskoriatza plazan egon ziren postuak:

Barazki eta baserriko produktuak

•**Barazkiak**

- Bolibarko Zubixete Baserria
- Maringo Garaikua Baserria
- Apotzagako baserriar taldea
- Leintzgain Almeneko Natur Etxea

•**Gazta**

- Mazmelako Kapela Baserria
- Apotzagako Arruakua Baserria
- Amezketatik "Mila Goñi"

•**Eztia**

- Arabako Elosutik "Aitor Aretxaga"

•**Edaria (Txakolina)**

- Bedoñatik "Felix Etxagibel"

Besteak

- Zubia Produktuak
- Jakion Produktuak
- Azalgorri perretxikoak



Plazan postu hauetatzen gain beste hauek ere egon ziren:

- Eskoriatzako taloak eta taberna
45 Kg arto irin saldu ziren
60 pertsona ibili ziren lanean
- Iparraldeko Urruña Ikastola eraikitzeke Harrien salmenta
- Postu denetako produktuez osaturiko opari otzara sozketatu zen.

Gernika Enparantzan:

Artesauak

•**Eskoriatzarrak**

- Gregorio Gracia: pelotagintzan.
- Maximo Jausoro eta Juanjo Arejolaleiba: altilea lantzen.
- Oscar Garcia: larrua lantzen.
- Almen ikastolako ikasleen eskulanak
- Atxorrotx ONGa.

•**Besteak**

- Idoia Ibañez arrasatearra: larrua, telarrak, bitxiak...
- Imanol Aranburu arrasatearra: zeramika
- Jesus Cruceta arrasatearra: zilarra eta bitxiak
- Joseba Gastiain antzuolarra: txistuak
- Iñaki Agirrezabala azpeitiarra: otargintza
- Xabier Iturriotz arrasatearra baina Iruñean bizi dena: zapatagintza

Fernando Eskoriatza enparantza gainean

Hegaztiak

- Marulandako Zurun Baserria: galeperrak, oiloak, oilarrak, ahateak, indioilarrak, txitoak...
- Los Arcos (Nafarroa): ostrukak.

**SARIAK**

Baserriko produktuetan irabazleak

- 1.-Apotzaga
- 2.-Azalgorri
- 3.-Bolibar: Zubixete Baserria

Txorimaloetan sarituak

1go saria: H.H. 5 urteko gela: kopa eta merienda
Beste 3 talde izan ziren sarituak eta oroigarria jaso zuten.
Guztira 19 txorimalo egin ziren eta 108 haur eta nagusik hartu zuten parte.

Errifan saritua

1go saria: Manolo Gonzalez.

Balorazioa:

Oso positiboa eta arrakastatsua izan ei da antolatzaileen ustez eta datorren urterako beste bat egiteko animatuta daudela adierazi digute, postu eta inguruko baserriar gehiagorekin.

San Pedro jai zoriotsuak!

bedardenda

Tfnoa.: 943 714327

ESKORIATZA

Pagalday

PAGALDAI HARATEGIA

Gaztañadui, 15
Tfnoa.:

Ondo pasa San Pedrotan!

COMPOSTELA

taberna

Berezitasuna:
Pulpoa gallego erara.

San Pedro,12

San Pedro jai zoriotsuak!

ITA

janari denda

San Pedro jai zoriotsuak!

HAURREN EGUNA:

Maiatzaren 31n Haurren eguna ospatu zen Eskoriatzan. Bertara sei herritako haurrak etorri ziren: Soraluze, Oñati, Antzuola, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasateko bi talde (Txikien taldea eta Lore Gaztea).

Harrera eki-taldia 10etan izan

zen eta ondoren kalejira egin zuten dantzariak herrian zehar. Eguerdik aldera bokadiloak jan zituzten eta hamarretakoa jan ondoren talde bakoitza auzo batera joan zen. Auzo bakoitzean

beraz, herri bateko ordezkariak ibili ziren beren dantzak eginez. 1'30etan bazkaltzera joan ziren eskoria-tzarren etxeetara.

Arratsaldean, 5ak aldera alardea hasi zuten eta 6'30ak arte dantzan aritu



ziren herriko enparantzan.

Bukatzean, antolatzaileek karameloak bota zizkieten haurrei, eta denak gustora bueltatu ziren beren herrietara. Haurren egunak aurten ere arrakasta handia izan du Eskoriatzan.

KURTSO BUKAERAKO JAIALDIAK ESKORIATZAKO ESKOLETAN

JOSE ARANA IKASTOLA

Ekainaren 17an oporrak hartu zituztela eta urtero bezela jaialdia anfolatu zuten ikastolako haurrek. Haurrek prestatuta zeuzkaten saioak egin zituzten gelaka (abestiak, antzerkiak, dantzak, jokuak...), beraien habilezia aski frogatuta utziz. Gurasoek ere hartu zuten parte jaialdi honetan, jokuak etb. eginez, nahikoa barre egin zuten haur eta irakasleek gurasoen kontura, aurpegia txokolatez zikinduta bukau zuten eta.

Ekintza hauen ondoren, sorpresa gorderik zegoen haurrentzat, gaztelu puzgarietan ibiltzeko aukera ere izan zuten eta. Gainera,

jaialdiaz bukatzean

irakasle eta ikasleek merixenda goxo-goxoa dastatzeko aukera izan zuten. Horrelako jaialdia antolteza ez al da oporrei hasiera emateko modu bikaina?.



Rosa andereñoaren haurrak dantza baten.



Luis Ezeiza ikastetxeko haurrak.

LUIS EZEIZA IKASTOLA

Luis Ezeiza ikastetxeak ekainaren 20an eman dio amaiera aurtengo ikasturteari gaztetxoentzako jaialdia antolaturik. Argazkian ikus daitekeenez kantu eta jolasak ez ziren falta izan.

ANGEL Aseguroak
Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...
 Arana, 19 Behea • Tf. 943-715203 • ESKORIATZA
Ondo pasa herriko jaietan!.

Pub ALDATZ
 Tfnoa.: 714171
 Ondo pasau herriko jaietan!
Musika ona entzun dezazun

Kamino printzipala apurtuta, oraingoan zertan dabiltz?

Ekaina hasieran San Pedro auzoan ekintzien tuberia kolektoriaran obra honi eta orain berriz, erdiko kalean dabiltz tubo horreik sartzeko ahaleginetan. Tuberixa honekin lortu nahi da, Eskoriatzako etxe guztietako eta baita enpresetako ur zikin denak batzie, honeik ez deixien zuzenien errekarra fan.

Deba ibaia eta gipuzkoako beste ibai batzuk garbiketako Eusko Jaurlaritzan, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Ur Kontzortzuek, erabakitako proiektuen barruen sartzen da Eskoriatzako obra hau.

Proiektu honi Eskoriatzan ekin jako, baina Aretxabaletan eta inguruko beste herrietan be fango die poliki-poliki tuberixak sartzen. Holan hemen inguruko ur-zikin danak kanalizatu gure die

Bergaran egingo dan depuradoran garbiketako.

Eskoriatzako zatixai dagokixonez, Irailerarte herriko zenbait zati moztuta egongo die (obra hau zatika egingo baita), eta honek eragozpen handiek sortuko ditu, bai ohiko bidietatik ezingo dalako ibili, eta baita aparkalekuak kamioi, eskabadora etb. ez okupatuta egongo dielako.

Dena den, San Pedruetan obrak geratute egongo die, eta kaminuek zabalik egongo die kontxientzako, ez ordea, autobus eta kamioientzat.

Obra honek luze joko dauen



San Pedro auzuen egindako zangan tuberixak sartzen.

txura danak dauko, baina euki deigun pazientzia apur bat, Deba ibaia garbitzeko ahalegin honek merezi dau eta.

ESKORIATZA-ARRASATE HERRI KROSAREN VI. EDIZIOA

Ekainaren 7an, eguerdiko 12:00etan eta euripean eman zitzaion hasiera lasterketari. 8,5 km.ko ibilbidea 23'56"tan egin zuen Isaac Kipriano keniatarrak. 10"ra Txomin Martin Zornotzarra heldu zen. Hirugarren postuan, berriz, Lhorry Tanzaniarra 24'17"rekin.

Emakumeetan Rosi Talavera, Hendaia, garaipena lortu zuen, Arrasate-Oñati herri krosetan ere lehen tokia lortu zuen.

UDALEKUAK 98, ESKORIATZAN

Aurten ere udalekuak izango dira Eskoriatzan. 13 begirale eta zuzendaria den Anaitz Lazkanok umeak animatuko dituzte. Ekintza desberdinak egongo dira umeek udako egun luze eta aspergarriak lagunartean igarotzeko.

Uztailean izango dira eta pasa den urtean bezala Eskoriatzako jolaslekuak beteta egongo dira.

LENIZ
AUTO ESKOLA

tel. 943 71 41 86

Ondo pasa herriko jaietan!

Gida baimen guztiak!

AKEITA

TABERNA

Setatik zabalik

Tfnoa.: 715094

KAFE, PINTXO eta BOKADILLOAK

San Pedro jaiak direla eta zoriondu nahi zaitugu!

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

ondo pasa herriko jaiak!

SAN PEDRO TXIKI JAIK UDAKO FESTEI HASIERA EMANEZ.

Iaz kale egin eta gero, aurten berriz ospatu dira Intxaurtxueta eta San Pedro auzoetako jaiak. Horrela, udako jaiak ekin diegu herrian, hurrengo San Juanak etorriko dira eta ostean herriko jai nagusiak diren San Pedroak.

San Pedro Txikiak aurten beste urte batzuetan baino jai aberatsagoak izan ditugu, ekintza gehiago izan dira eta batzuk oso originalak gainera. Larunbat goizean, umeak fitxak zirela partxisean aritu ziren. Horretarako Intxaurtxueta plazaan partxis erraldoi bat margotu zuten antolatzaileek, eta aitortu beharra dago dotore gelditu zitzaizela.

Gauean berriz, koipeztutako txarrikumak harrapatzen gustora ibili zen jendea, ez dakigu inork lortu ote zuen txarrikuma harrapatzerik, baina ziur gaude batek baino gehiagok

zeharo koipeztuta bukatuko zuela.

Larunbat arratsaldean, I. go Aerobiton ekitaldia egin zen, Compostela tabernan mus txapelketa ospatzen zen bitartean. Eta igandean, berriz, umeentzat parkea ipini zuten, gaztelu, giza-futbolin eta guzti.

Horietaz gain jendearen gustoko beste ekintza mordo bat ere egon zen. Baina ez goaz gu hemen horiek aipatzera, banatu zituzten programetan agertzen baitziren, eta nahi izan zuenak parte hartu baitzuen. Ziur gaude jai hauetan disfrutatutak zutenek hurrengo urteko programa egitean arrakasta izan zuten ekintza horiek kontuan izango dituztela. Baina bada datorren urterako



Umeak majo ibili ziren partxisien jokaldien. Eta hain ume ez zirenak gustora begira.

gogoratu behar duzuen beste gauzarik ere.

Aurtengo despistea errepika ez dadin, gogoratzen dizuegu Eskoriatza herri euskalduna dela, eta programa egin zuenak euskaraz jakin ez arren, Eskoriatzan (San Pedro eta Intxaurtxueta auzoak barne) badela jenderik programa hori euskeratzeko prest, geu barne. Dena den, tristea ere bada herri euskaldun baten "gauzak euskaratzen" ibili behar izatea.



San Pedro Txiki, jaietarako propio margotu zen partxisa Intxaurtxueta plazaletan.

Jaietan partxisean egin behar zela eta, Intxaurtxueta plazaletan partxis dotore hau egin dute. Partxis taula hau birritan margotu zen. Lehen aldiz margotu zenean, pintura altxatu egin zenez. Udaletxeri baimena eskatu eta berriz margotu zen.

DEBA IBAIKO AHATEAK KUMEAK IZAN DITU.

Ekainaren lehenengo astean erreko ahateak, ahatekumeak izan zituen. Ahatea elizako zubiaren azpian zegoeneta 15 ahatekuma bazituen inguruan txio-txioka, baina bigarren egunerako 11 zeuden bakarrik eta egunak pasa ahala ahatetxo txio-txioka motelago entzuten zen, bost bakarrik gelditzen ziren eta. Esan digutenez, txakurren batek garbitu



zituen ahatekumak. Espero dugu gelditzen direnek zorte gehiago izango dutela, eta horrela kozkortzen direnean ibaian gora eta behera plisti-plasta ikusiko ditugu.

Cuenta Joven de Caja Laboral El servicio más completo.

San Pedro jai zoriontsuak!

Euskadiko Kutxaren Kontu Gaztea. Zerbitzuetan osatuena.

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



LENIZ
ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfno.: 715061

Jai zoriontsuak eskoriatzar guztiei!

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.

GAZTE AGENDA

BEKAK

* SGA Eren eskutik, ikusentzunezko artea, antzerkia, musika eta dantzaren arloan Estatu Batuetan ikasketak osatzeko bekak. Epea: uztailak 2.

* Leonardo programak, atzerriko enpresetan lan praktikak egiteko aukera, ikasketen azken urtea edo ikasketak bukatu berriak dituzten pertsonentzat, beti ere lan esperientziarik gabekoak. Izen emateko epea: uztailak 30.

LANA

* Noaingo (Nafarroako) Musika Eskolarako, biolontzelo irakaslea behar dute. Epea: uztailak 1.

* Billabonako Udalerako, kirol dinamizatzailea eta gazte informatzailea behar dute. Epea: BOEn argitaratu zain.

* Bermeoko Udalak, euskera

dinamizatzaile bat behar du. Epea: BOEn argitaratu zain.

LEHIAKETAK

* Komiki ez sexita lehiaketa Arrasateko Emakume Sailaren eskutik, bitik lau orri bitarteko luzeera, euskaraz edo gaztelerez. Epea: uztailak 13.

* Irun Hiria XXIX. Literatur Sariak, olerkia, eleberria eta saiakera alorrean, euskeraz nahiz gaztelerez idatziak. Epea: uztailak 15.

* Aoizen poesia sariketa. Poema bakar bat idatzi behar da. Epea: uztailak 17.

* Donostia Hiria literatur sariak, ipuina eta antzerkia modalitateetan, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Epea: urriak 31.

* Argazki lehiaketa ezberdinak:
- Zumaian, txuri beltzean eta gai librean. Epea: ekainak 26.

- Burgosko Diputazioak, koloretan edo txuri beltzean. Epea: uztailak 31.

- Zumarraga-Urretxu. Epea: irailak 11.

- Gipuzkoako Argazkilari elkarteak, txuri beltzean, koloretan eta diapositibak. Epea: irailak 13.

- Oviedoko Udalak, gutxienez 3 argazki, gehienez 6. Epea: irailak 30.

- Arrasateko Gazteria Sailak, epea: urriak 9.

- "Camino de Hierro", trenbideak eta bere ingurunea. Epea: azaroak 20.

- Astigarragako Udalak, urteroko argazki lehiaketa, zuri beltzean edo koloretan eta gai librean. Epea: azaroaren 27an.

IKASTAROAK

* Arrasateko Enplegu Zerbitzuak, autoenplegua eta enpresa ekimenak sustatzeko ikastaroa antolatu du, irailetik aurrera martxan jarriko dena. Izena emateko epea: ekaina 30.

EZKONTZAK

***98-06-13**

Jose Manuel, Menendez García + Miren Jone, Pagalday Aguiriano.

***98-06-13**

Sebastian, Abad Lara + M^a Esther, Diez Alvarez.

***98-06-13**

Belen, Pagalday Eraña + Josean, Redin.

***98-06-13**

Alberto Uribe-Etxeberria Eraña + M^a Nerea Iñurrategi.

AEK-ko UDAKO BARNETEGIAK

Iparaldean:

- Urepele.
- Xiberoa.

Hegoaldean:

- Aia, Alegia, Arantza, Aulesti, Azpeitia, Elgeta, Foru, Lizartza, Oiartzun, Ondarroa, Zaldibia, Zestoa.

Eskaintza bereziak

- Mintza praktika.
- Mendebaldeko euskera.
- 1.Urratsa.
- Familientzako barne-tegia.

Informazioa euskaltegietan!

BENTA-MOTZ

**Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822**

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.



Ondo pasa San Pedroak!

Industrias Olabbarri, S.A.

Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxa: 34-43 - 714061



Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 943 71 51 20

San Pedro jai zorionsuak eskoriatzar gutztoi!

AZKOAGA ESTANKOA

San Pedro jaietan zoriondu nahi zaitugu!

Zure Zerbitzura



Argazki hau 1960. urteko San Pedro bigarrenean aterata dago plaza parean. Ezkerretara "Zarauztarra" taberna ikus daiteke

Eskerretik eskumara **Zutirik:** Bernabe Aperribai, ezezaguna **Jarrita:** Tomás Bengoa, Conchita Navaridas, M^a Jesus Osinaga, Vicente Kortazar, Begoña "la maña", Jesús Eskibel, eta aurrean Jose M.^a Royo.

Argazkia eta informazioa: Tomas Bengoa

Elkarrizketa.

AKASO "LA MODE"... ANTI-MODA AL DA?

Zer esan nahi du "LA MODE"-K?

LA MODE, ideia bat gauzatzeko modua da, zerbaiti ekiteko era bat.

Zer da Moda?

Gustu eta irizpide guztiak bateratzeko modu bat da. Modak dena batzen du, eta hau gehiengo batek jarraitzen du, gizabanakoari garrantzia kenduz.

Orduan, zer diferentzia dago Moda eta "La Mode"-ren artean?

LA MODE-k ileapaindegitza beste modu batera ulertzen du eta agian horrek egiten du ezberdin. Sormena eta irudimenaren bitartez, bezero bakoitzak estilo propioa izatea lortu nahi da, orrazkera eskusiboak eginez.

Zein da "La Mode"-ren helburu nagusia?

Ileapaindegia ahalik eta atsegina izatea, horretarako bezeroak gustora senti daitezen ahalegintzen gara. Produktuei dagokienez, hauen kalitatea oso kontutan hartzen dugu, produktu naturalak erabiliz.

**Bizitza hau lau egun baino ez dira...
Eta azken baten, dirua zertarako da ba?**

Nolako bezeroak etortzen dira "La Mode"-ra?, eta zer da gehien estimatzen duzuen?

LA MODE-ra era guztietako jendea etortzen da, hemen denentzat dago lekua. Bakoitzak bere ilusioak dauzka, eta gu horiek gauzatzeko saiatzen gara. Baina guk gehien estimatzen duguna jendearen sinpatia da, hona jende jatorra, oso jatorra, super jatorra etortzen baita!

